

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Alkate-udalburuak bere zereginak eskuordetzea lehengo Alkateordeari

Alkate-udalburuak 2022ko ekainaren 9ko 1059. dekretuaren bidez ebatzi zuen lehengo Alkateorde Joseba Amondo Escuzari eskuordetzea Alkate-udalburuari dagozkion zeregin guztiak 2022ko uztailaren 11tik 17ra arte, biak barne. Horiek horrela eta arestian aipatutakoarengatik, iragarki hau argitaratu da, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzkoaren 44 eta 46 artikuluetan ezarritakoa betez, herritar orok horren berri izan dezan.

Laudio, 2022ko ekainaren 15a

Alkate-udalburua
ANDER AÑIBARRO MAESTRE